

-1. Zeregina. DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana. Tarea 1. Plan de mejora de las competencias lectoras en la ESO.

Testua. TEXTO.

Nekazaritza munduan

Irakurri gaur egungo munduko nekazaritzari buruzko testuak:

Benito eta Ángeleri, Hondurasko lursail txiki bateko jabeei, eginiko elkarrizketa.

Elkarrizketa-egilea: Zer hazten duzue lursailetan?

Benito eta Ángela: Etxetik eta ibaitik gertu dauden ureztatze-sailetan, fruta-arbolak eta barazkiak hazten ditugu, hala nola ananak, kokoa, papaia, ogi-fruta eta tomatea. Eta urrutiagoko eremuetan, artoa, indabak, juka, azukre-kanabera, banana eta bananondoa hazten ditugu.


Elkarrizketa-egilea: Animaliarik hazten al duzue?

Benito eta Ángela: Oiloak eta bi txerri ditugu; horrela arrautzak eta haragia ditugu etxean kontsumitzeko zein saltzeko.

Elkarrizketa-egilea: Zenbat pertsonak lan egiten dute lursailen?

Benito eta Ángela: Bost gara, gu biok eta hiru seme zaharrak. Beste bostak eskolara joaten dira.

Elkarrizketa-egilea: Zer teknika erabiltzen dituzue lurra lantzeko?



Benito eta Ángela: Guk "socola" deritzoguna da gehien erabiltzen duguna. Zuhaitzak moztu, basoa garbitu eta erretzen oinarritzen da. Eremu handiak behar ditugu, txandakatze etengabea egiteko eta ekoizpen handiagora lortzeko.

Elkarrizketa-egilea: Nola antolatzen duzue laboreen txandakatzea?

Benito eta Ángela: Antolaketa ona behar da. Erretzea maiatzaren hasieran egin behar da, hori funtsezkoa da.

Elkarrizketa-egilea: Eta noiz ereiten duzue?

Benito eta Ángela: Produktuen arabera. Adibidez, artoa, juka eta quequisquea, erretzea egin eta berehala; beste batzuk, aldiz, geroago; indabak, esaterako, abenduan.

Elkarrizketa-egilea: Beti al duzue lana?

Benito eta Ángela: Ia beti, laboreak garai desberdinetan erein eta biltzen baitira; eta, gainera, ongi zaindu behar dira.

Elkarrizketa-egilea: Uztaren zatiren bat saltzen ahal duzue?

Benito eta Ángela: Horregatik saiatzeko gara uztak onak lortzen, hiriko azokan saltzeko.

Kansasko Wait jaunari egin-dako elkarrizketa. 454 hektareako gari-ustiategi bat du.

Elkarrizketa-egilea: Nork laguntzen dizu ustiategian?

Mr. Wait: Seme zaharrak.

Elkarrizketa-egilea: Beti hazi duzu garia?

Mr. Wait: Ustiategia modernizatu nuenetik, garia hazi dut beti, oso erraz saldu eta eskulan gutxi behar duelako. Lan guztia makina modernoekin egiten da.

Elkarrizketa-egilea: Zeintzuk dira gehien erabiltzen dituzun makinak?

Mr. Wait: Lurra prestatzeko, golde mekanikoak eta traktoreak ditugu. Ereiteko, abioneta bat dugu, semeak pilotatzen duena. Eta uztak biltzeko, makina bereziak eta oso modernoak erabiltzen ditugu; garestiak izan arren, oso bizkorrak direlako eta erabiltzen errazak direlako.

Elkarrizketa-egilea: Erabiltzen al duzu ongari kimikorik, pestizidarik eta herbizidarik?

Mr. Wait: Bai. Ongarriak, aldizka; herbizidak eta pestizidak, behar direnean.

Elkarrizketa-egilea: Non gordetzen dituzu makinak, erabiltzen ez dituzunean?

Mr. Wait: Etxetik gertu dauden hangarretan.

Elkarrizketa-egilea: Non saltzen duzu garia?

Mr. Wait: Estatu Batuetan, baita munduko beste herrialde askotan ere, merkataritza espezializatuko enpresen bitartez.



Texto reproducido con permiso de Editorial Vicens Vives, S.A.

GAIA/ASIGNATURA	GEOGRAFIA ETA HISTORIA
MAILA/CURSO	DBH -3
IKASTETXEA/CENTRO	ZIZUR BHI
DEPARTAMENTUA/DEPARTAMENTO	GIZARTE ZIENTZIAK
IRAKASLEA/PROFESOR / A	ANTONIO DE PABLO-YOLANDA GAGO
JATORRIA/FUENTE	
EGILEA/AUTOR	Pilar Benejam i Arquimbau
IZENBURUA/TÍTULO	Lurra, gizarte zientziak, geografia, 3 DBH, 3 maila
ARGITALETXEA/EDITORIAL	Editorial VICENS VIVENS,S.A.
URTEA/AÑO	2008
ORRIALDEA(K)/PÁGINA	Demos 3 - 75. orrialde
ISBN	978-84-316-8472-3
TESTU-MOTA/TIPOLOGÍA	
OINARRIA/SOPORTE	Texto impreso
FORMATOA/FORMATO	Ez-Jarraian irudiekin
MOTA/TIPO	ELKARRIZKETA
ERABILERA/USO	PUBLIKOA
ESTRATEGIAK/ESTRATEGIAS DE LECTURA	
IRAKURRI BAINO LEHEN/ANTES DE LA LECTURA	<p><u>A. Hipotesiak egin:</u></p> <ol style="list-style-type: none"> Argazkia begiraten eta izenburuak irakurtzen gaia zertan datzan asmatzen saiatzea. <p><u>B. Aldez aurretiko ezagutza bizkortu:</u></p> <ol style="list-style-type: none"> Nekazaritza motak guztien zonaldek mapa baten kokazea Honduras eta Kansa kokatzea Monolaborantza eta polilaborantzaren arteko aldeak bereiztea, laboreen txandakatzea.
IRAKURRI BITARTEAN ETA ONDOREN /DURANTE Y DESPUÉS LA LECTURA	<p><u>C. Irakurleen estrategiak:</u></p> <ol style="list-style-type: none"> Testuaren irakurketa hiztegia zabaltzeko, kontzeptu ezeagunak azaltzen: papaia, socola, frijoleak, ogi-fruta, juka, banano, quesquiquea, ongarri kimikoak, pestizidak, herbizidak, hangara. <p><u>D. Interpretazioa garatu:</u></p> <ol style="list-style-type: none"> Amerikan ematen diren nekazaritza paisaien informazio orokorra adierzatea (Biziraupeneko nekazaritza eta merkatuko nekazaritza). Garatzeko bidean dauden herrialdeetan eta herrialde garatuetan lehenengo sektorean dauden desberdinak ohartzea. Nekazaritzan ustiatzearen mota desberdinez ohartzea: ustiatzearen tamaina, teknikak, eskulana, ekoizpena, helburua.

	9. Elkarrizketa bakoitza irakurri ondoren, haien bizimodua asmatzea.	
IRAKURRI ONDOREN / DESPUÉS DE LA LECTURA	<u>E. Laburbilduma</u>	
	<p>10. . Partzialak: 1. elkarrizketa: Hondurasen laboreak eta animaliak haztea Langileak Laboreen teknikak Helburua</p> <p>2. elkarrizketa: Laboreak Langileak Laboreen teknikak Helburua</p> <p>11. Globala: bi zonaldeen arteko alde garrantzitsuak laburbiltzea, hiztegi espezifikoak erabiltzen: mono – polilaborantza, mekanizazioa, ...</p>	
JARDUERAK/PROCESOS LECTORES		
Informazioa bilatzea edo eskuratzea RECUPERAR - OBTENER INFORMACIÓN	1.	Zein jarduera ekonomikoa dihardute Benito en Angelak Caño Viejon?
	Erantzuna/ Respuesta	<i>fruta-arbolak eta barazkiak haztea eta animalia txikiak haztea</i>
	2.	Zertan datza Caño Viejon gehien erabiltzen duten nekazaritza-teknika?
	Erantzuna Respuesta	<i>errausketa bidezkoa edo "socola" deiturikoa, zuhaitzak moztean, basoa garbitu eta erretzean datzana</i>
	3.	Zer hazten du Mr. Wait eta zergatik?
Erantzuna Respuesta	<i>garia bakarrik, oso erraz saldu eta eskulan gutxi behar duelako</i>	
Ulermen orokorra COMPRENSIÓN GLOBAL	1.	Erlazionatu elkarrizketa bakoitza nekazaritza mota batekin: a- merkatuko espekulazioko nekazaritza: elkarrizketa _ _ _ _ _ b- biziraupeneko nekazaritza: elkarrizketa _ _ _ _ _
	Erantzuna Respuesta	<i>a- Mr. Wait. b. Benito eta Ángela.</i>

	2.	<p>Erlazionatu hurrengo kontzeptuak Mr. Waiten ustiategiarekin edo Benito eta Angelaren lursailarekin:</p> <p>a- Eskulan asko b-eskulan gutxi c- Makineria d- makineria eta modernizatua lanabes urriak e- Polilaborantza f- monolaborantza g- Helburua: h- helburua: autokonsumoa nazioarteko merkatua</p>
	Erantzuna Respuesta	<i>Benito eta Angelaren lursaila: a, d, e y g. Mr. Waiten ustiatagia: b, c, f y h.</i>
Interpretazioa INTERPRETACIÓN INFERENCIAS	1.	<p>Aukeratu esaldi zuzenak:</p> <p>a. Benitok eta Angelak bost seme-alaba dituzte.</p> <p>b. Benito eta Angelaren seme-alaba guztiak eskolara joaten dira.</p> <p>c. Benito eta Angelaren hiru seme-alaba ez dira eskolara joaten.</p> <p>d. Benito eta Angelaren seme-alabak ez dira eskolara joaten.</p> <p>e. Benito eta Angelaren etxean hamar pertsona bizi dira.</p>
	Erantzuna Respuesta	<i>c) eta e) zuzenak dira</i>
	2.	Zergatik behar dute hazi animaliak Caño Viejon?
	Erantzuna Respuesta	<i>haien etxe-ekonomia betetzeko: beren elikadura haragiarekin betetzen dute eta soberan dagoena azokan saldu ahal dute</i>
	3.	<p>Erlazionatu hurrengo kontzeptuak Caño Viejorekin edo Mr. Waitekin:</p> <p>a. Hangar b. Lursail txiki c. Pestizidak d. Hiriko azoka e. Makina modernoak f. Laboreak txandakatzea g. Socola h. Enpresa komertziala i. Quesquiquea j. Ustiatagia</p>
	Erantzuna Respuesta	<i>Caño Viejo: b), d), f), g), i). Mr. Wait: a), c), e), h), i).</i>

Formaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN FORMA	1.	Uste duzu nekazaritzaren eragile fisikoek (klima, erliebea eta lurzorua) eragin berdina izango duten Caño Viejon eta Mr. Waiten ustiattegian? Arrazoitu zure erantzuna.
	Erantzuna Respuesta	<i>Ez. Caño Viejon eragin gehiago izango dute, bitarteko ekonomiko eta tekniko gutxi dutelako, beraz, lehorteen uztak hondatzea eragin ditzakete. Mr. Waiten ustiattegian, eragile horietako batzuk erraz gainditzen ahal dituzte bide teknologikoengatik.</i>
	2.	Produktuen prezioak bat-batean behera joatekotan. Nori egingo dio kalte gehiago? Arrazoitu zure erantzuna
	Erantzuna Respuesta	<i>Mr. Waiti bere ekonomiaren oinarria produktuak bere herrialdeko eta nazioarteko merkatuan saltzea delako. Bestalde, Caño Viejon lortzen den zati gehiena kontsumorako zuzenduta dagoenez, eta galduko dute bakarrik hiriko azokan lortzen duten diru-sarrera.</i>
Edukiaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN CONTENIDO	1.	¿Nola bermatzen dituzte argazkiek elkarrizka bakoitzaren oinarrizko ezaugarriak?
	Erantzuna Respuesta	<i>Caño Viejon eskulanaren garrantzia azpimarratzen. Mr. Waiten gari-ustiattegian berriz, makina modernoena.</i>
	2.	Informazio bera erakusteko, ¿zer beste bide batzuk erabili ahal ziren?
	Erantzuna Respuesta	<i>Telebistan elkarrizketa egitea. Protagonista bakoitzak bere bizimodua azaltzea. Biziraupeneko nekazaritza eta merkatuko nekazaritzaren arteko desberdintasunak seinatzea.</i>

